

«Konturatu naiz jendeak Touré maite duela», dio Jon Arretxek

Bilboko San Frantziskoko afrikar beltz hau protagonista duen hirugarren liburua plazaratu du eta gehiago egin nahi ditu

■ FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Jon Arretxek (Basauri, 1963) aurrera darrai Touré-ri buruzko liburuekin. Protagonista honen hirugarren nobela aurkeztu zuen atzo, 'Hutsaren itzalak' deritzana, eta garbi utzi du: segi egin du, harik eta saga bat osatu arte.

Lehenengo liburua, '19 kamera', Touré eta beronen bizitokia -Bilboko San Frantzisko auzoa- aurkezteko izan ziren, atzokoan idazleak kazaldu zuenez. Bigarren liburua, '612 euro' delakoa, umore-tankerakoa omen zen neurri handi batean, eta beltzen pikareska azaltzen zuen. Oraingo hirugarren hau, berriz, «go-

gorrena, gordinena eta beltzena» da.

«Garbi neukan oraingoan ezin nuela 'Touré-ren beste bat' atera, baizik eta istorio oso desberdin bat -esan zuen Arretxek atzoko aurkezpenean-. Istorio hau gogorra da, besteen aldean eritimo gehiago dauka eta emakumeek pisu handiagoa hartu dute. Touréren alaba -Sira- Paristik da etortzekoa aitari bisita egitera, baina ez da Hendaiara iristen, eta, larriturik, Tourék bere amorrantea -Kristina- bidaltzen du bila, berak ezin baitu muga zeharkatu, legez kanpoko egoeran bizi baita. Gainera, badago prostituta gazte-gazte bat, bere haurra berreskuratu nahi duena. Eta Touréren emaztea ere hor dago Burkina Fason zain, desiratzen Europara etortzeko».

Erritmoaren alde egin nahian,

idazleak bi narratzaile erabili ditu. Batzuetan, Touré bera jarduten da kontalari; eta beste zenbaitetan, Burkina Fason gertatutako eszenetan, narratzaile orojakile bat ageri da.

Hasierako eszena harri-garria da. Bilbon Liburu Eguna ospatzen ari da katean, halako batean antolatzaileen multzoko bi gizon hurreritzen dira mikrofono aldera, eta haiek bat hizketarako prest dagoelarik, entzuleen artean gizon beltz txiki bat ateratzen da eta, korrika, merengezko tarta lehertzen dio aurpegiari hizketagaitera doanari.

«Krisi hirukoitza azaltzen da liburuan: batetik, Europako krisi ekonomiko orokorra; bestetik, Bilboko San Frantzisko auzoko krisi berezia; eta, hirugarrenik, Touréren krisi are berezia-



HUTSAREN ITZALAK
JON ARRETXE

Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 240.
Prezioa: 18 euro.



Jon Arretxe, atzo. ■ MIKEL FRAILE

goa. Lanik gabe jarraitzen du, eta gainera eskrupulurik gabeko abokatu batek 2.000 euro lapurtu dizkio, paperak lortuko zizkiola aginduta», jarraitu zuen Arretxek. Bilboko hirian, batzate beste langabezia %15ekoa omen da, eta San Frantziskon, aldiz, %40koa. Lanaz gain, bada Tourérentzat beste kezka bat: ertzainek presioa egiten dio-

Ikus bideoa mugikorrarekin QR kode hau eskaneatuz



te, txibato bihur dadin.

Prostituzioak presentzia handia du liburuan. Tradizionalki, Nigeriako emakumeek izan ohi dute ogibide hori. «Gezurrezko shaolin horren kasuak agerian utzi zuen emakume horien egoera tragikoa. Txiripaz harapatu zuten gizona, baina lasai asko gerta zikeen bestela, izan ere hildako emakume beltzak inork ez ditu erreklamatzeko. Liburuaren eskaintzan hau irakur daiteke: «Gure artean egon arren existitzen ez diren afrikar guztiei».

Kritika soziala etengabe agertzen omen da liburuan zehar. «Touré gehien kritikatzeko eta zigortzeko dutenak, lehen, aurretik, etorkin izandakoak dira». Aurrekoetan bezala, Arretxek eskerrak eman zizkien San Frantziskon laguntzaile izan dituen guztiei. «Han jende asko ari da lanean ahulenen alde. Haiekin egon izan naiz eta asko ikasi dut. Oso gustura nago liburu-bilduma honekin. Konturatu naiz jendeak Touré maite duela».